



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

ALDUNDIAK ARTXANDAKO TUNELEN “BIZITZA ERABILGARRIA LUZATZEKO” HIRU JARDUKETA “INDEPENDENTE” PLANTEAU DITU

- **Imanol Pradales Azpiegitura eta Lurraldearen Garapenerako foru diputatua Bizkaiko Batzar Nagusien aurrera etorri da, Artxandako Tunelen egungo egoera, Gaztelugatxeko San Joanerako irisgarritasuna eta errepideen mantentze lanetarako kontratu barria azaltzeko.**
- **Bizkaiko Batzar Nagusiek ez dabe onartu covid-19a dala eta Aldundiaren “makro-proiektuak eta ekitaldi handiak” “barriro aztertzeko” EH Bilduk aurkeztu dauen arauz besteko proposamena.**

(Bilbon, 2020ko uztailaren 27an). Imanol Pradales Azpiegitura eta Lurraldearen Garapenerako foru diputatua Bizkaiko Batzar Nagusietako batzordera etorri da, oposizinoak eskatuta, Artxandako tunelakaz, Gaztelugatxeko San Joanerako irisgarritasunagaz eta errepideen mantentze lanetarako kontratu barriagaz erlacionautako hainbat puntu azaltzeko. Txorierriko igarobidea Bilbo erdialdeagaz lotzen daberen lur-azpiko errepideei jagokenez, Pradalesek, “prebentzinozkoak” eta “independentek” izango diran hiru proiektu lizitauko dirala iragarri dau, bere berbetan, iraunkortasun ekonomikoari eta erabilgarritasun publikoari jagokenez “aspalditik” “oso portaera ona” euki dauen azpiegituraren “bizitza erabilgarria” luzatzeko.

EH Bilduk eskatuta Bizkaiko Batzarretako Azpiegitura eta Lurraldearen Garapenerako Batzordean gai horren inguruan azalpenak ematera etorri dan Aldundiko arduradunak iragarri dauenez, Team eta Euroconsult ingeniaritza enpresek azterlan bat egin eben orain hilebete batzuk, Artxandako tunelen Jarraipen Geoteknikoaren Planaren barruan, 2002an zerbitzua emoten hasi zan azpiegituraren egoera ezagutzeko. Txosten teknikoaren ondorioek erakusten dabenez, hainbat “patologia” dagoz tuneletan, “hormigoia estaldurak esfortzu handiagoa jasaten dauelako”. Arazo horreek “azpiegituraren %50ean daukie eragina”, baina horrek ez dau “segurtasun falta” egoerarik eragiten erabiltzaileentzat.

Txostenaren ondoren, Aldundiak eraikuntza proiektua eta tunelak konpontzeko proiektua lizitau ebazan urtarrilaren 20an, eta orain gabezia horreek zehaztu eta soluzino teknikoak bilatu beharko dira. Holan, Aldundiko planteamentua “epe laburrean, ertainean eta luzean” jardutea da. Horretarako, Interbiaken bitartez, hiru eraikuntza proiektu “independente” idazteko aginduko dau,



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

edozean be “aurreikusten eta itxoiten zan kaltea” apur bat arintzeko. Izan be, lur azpitik doanez, azpiegitura “kritikotzat” hartzen da. Proiektu barriek, tunelen estrukturetan ura egoteagaitik sortu daitekezan arrakala eta kalte posibleei erantzun beharko deutsee.

EH Bildutik, Raúl Méndez batzordekideak gabezia horreek tunelen 18 urteko biziaren “behin eta barrero” agertu dirala azaldu dau, eta horrek “oso kostu altuak” eragin dituala herritarrentzat. Bere eretziz, Artxandako tuneletan “danak txarto urten dau” eta kobazuloek “normalak ez diran gabeziak daukiez”. “Gauzak ez dirala ondo egin autortzeko” eskatu deutso Aldundiari. “Emoten dau gehiago pentsatu dala enpresa eragilearen irabazi ekonomikoetan obraren kalidadean baino”, esan dau.

ERREPIDEETAKO KONTRATU BARRIA

Pradalesek metropolialdeko errepideen kontserbaziorako eta ustiapenerako, mantentze-lanetarako eta operaziorako kontratu barriaren barri be emon dau Bizkaiko Batzarretan. Aldundiak foru errepide sareak dituan lau kudeaketa guneen artean nagusia lizitatu dau. Izan be, gune horrek lurralde historikoko trafiko guztiaren “%80” hartzen dau, “3.500 milioi ibilgailu inguru kilometro eta urte bakoitzean”. Urtean “28 milioi euro” ingurukoa dan gune horretako mantentze eta kontserbazio lanen inbertsinoa, Aldundiak foru errepide sare osoan horretara bideratzen dauen kopuru osoaren “%55” ingurukoa da. 138,5 milioi izango dira bost urtetan, hau da, une honetako kontratua baino “%20” gehiago. Igoera hori, azpiegitura gehiago sartu izanak eta alderdi teknologikoakaz eta ingurumenekoakaz lotutako eskakizun barriak egoteak eragingo dau.

Une honetan indarrean dagon kontratua datorren irailean bukatuko da, eta kontratu barriak hori ordeztuko dau. Bertan, errepideak, erabiltzaileentzako segurtasun eta erosotasun baldintza hobetan egoteko egin beharko diran jarduketak guztiak ezarten dira. Horreen artean, kontratuak jarduketak jasoten ditu 883 errepide kilometrotan, 359 ezpondatan, 449 zubi eta bide-zubitan, 33 tuneletan eta 32 bidegorri kilometrotan. Kontratu honetan aurreikusten diran jarduketak egiteko “22 enpleo” sortuko dira, eta “horreetatik 181 zuzenak eta 41 zeharkakoak” izango dira.

EH Bilduk gogoratuazo dauenez, joan dan maiatzaren 15ean kontratua lizitatu izanaren ondorioz, une honetan emakidea daukan ABEEko, UTE AUBIDEko, beharginek errekursoa aurkeztu dabe Kontratzeko Errekursoen Aldundiko Administrazio Epaitegiaren aurrean, euren eretziz ez dalako beteten gizarte arloko klausulen ganeko arautegia. Izan be, ez dira beren-beregi jasoten



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

beharginen subrogazioa eta aplikatu behar den hitzarmen kolektiboa, Raúl Méndezek azaldu dauenez.

Pradalesek ukatu egin dau hori. Azaldu dauenez, epaitegiak garagarrilaren 1ean ebatzi ebanek, baldintzen pleguak “ondo baino hobeto” beteten ditu gizarte arloko eskakizunak, “argi eta garbi” erakusten dau eraikuntzako sektorearen hitzarmenaren erreferentzia, eta beharginen subrogazioa jasoten dau. Hori bideratu jako daborduko AUBIDEko enpresa batzordeari.

GAZTELUGATXEKO APARKALEKUA

EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaia taldeek alkarregaz eskatu daben beste agerraldi batean, diputatuak jakinarazo dau Foru Administrazioak geratu egin dauela Urizarretan, Bakion, Gaztelugatxeko San Joan ondoan, 51 ibilgailurentzako aparkalekua eregiteko proiektua. Uda honetarako egitea egoan aurreikusita. Pradalesek azaldu dauenez, bideko segurtasuna hobetzeko martxan jarri diran neurriak, irisgarritasuna anezken bitartez hobetzeko apustuak eta, covid-19a dala eta, leku turistiko horretan egunean gehienez 960 bisitari jasoteko ezarri dan mugak baztertu egin dabe aparkalekua eregiteko proiektua.

“MAKROPROIEKTUEN” BERRIKUSPENA

Amaitzeko, Bizkaiko Batzar Nagusiek ez dabe onartu COVID-19aren testuinguruaren barruan Aldundiari “makro-proiektuen eta ekitaldi handien eredua barriro aztertzeko” beharrezkoak diran neurriak ezarteko eskatuz EH Bilduk aurkeztu dauen arauz besteko proposamena, inbertsino hori “zerbitzu publikoak indartzera” bideratzeko.

Batzordeko ganerako taldeak ekimenaren kontra agertu dira. Eduardo Andradek (PP) esan dau lehenengo krisiaren ondorioak ikusi behar dirala, eta horren ostean gogoeta orokorra egin, aurrekontuen bitartez. Ignacio Jerónimok (PSE-EE) azaldu dauenez, Aldundiak epe laburrean planteetan dituan inbertsinorako proiektuak une honetan Bizkaiko ekonomia “bultzatuko daben” egitasmoak dira, eta koalizino abertzaleari zein proiektu kenduko leukezan definitzeko eskatu deutso. Bere berbetan, “gai publikoek lidergoa behar dabe, eta azpiegiturretan inbertidutea gizarteratzerako tresna bat da”. Garazi Díaz intxaustik (EAJ-PNV) nabarmendu dauenez, inbertsino publikoa “inoiz baino beharrezkoagoa da”, eta ukatu egin dau “gizarte arloko beste plan batzuk murriztuko” dituanik. Eraikuntzaren sektoreak “28.000 enpleo baino gehiago ditu, eta lurraldeko BPGaren %6 baino gehiago” beteten dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LA DIPUTACIÓN PLANTEA TRES ACTUACIONES “INDEPENDIENTES” PARA “ALARGAR LA VIDA ÚTIL” DE LOS TÚNELES DE ARTXANDA

- **El diputado foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, Imanol Pradales, comparece en las Juntas Generales de Bizkaia para explicar la situación actual de los Túneles de Artxanda, la accesibilidad a San Juan de Gaztelugatxe y el nuevo contrato de mantenimiento de carreteras.**
- **Las Juntas Generales de Bizkaia rechazan una proposición no de norma de EH Bildu para “revisar” los “macroproyectos y grandes eventos” de la Diputación como consecuencia del covid-19.**

(Bilbao, a 27 de julio de 2020). El diputado foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, Imanol Pradales, ha comparecido hoy en las Juntas Generales de Bizkaia, a petición de la oposición, para explicar diferentes cuestiones en relación a los Túneles de Artxanda, la accesibilidad a San Juan de Gaztelugatxe y el nuevo contrato de mantenimiento de carreteras. En relación a los subterráneos que conectan el corredor del Txorierrri con el centro de Bilbao, Pradales ha anunciado la futura licitación de tres proyectos de carácter “preventivo” e “independiente” para “alargar la vida útil” de una infraestructura que ha tenido un comportamiento “muy bueno”, según él, “desde hace mucho tiempo”, tanto en lo referente a su sostenibilidad económica como en cuanto a utilidad pública.

El responsable foral, que ha comparecido sobre este asunto en la comisión de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Cámara vizcaína a petición de EH Bildu, ha anunciado que las ingenierías Team y Euroconsult realizaron hace unos meses un estudio geológico y geotécnico, en el marco del Plan de Seguimiento Geotécnico de los Túneles de Artxanda, para conocer el estado de una infraestructura que entró en servicio en el año 2002. El informe técnico concluye que existen diversas “patologías” en los túneles debidas a “un mayor esfuerzo soportado por el revestimiento del hormigón” en las labores de sostenimiento del túnel, que afectan “al 50% de la infraestructura”, pero que “en ningún momento” generan un “problema de seguridad” para los usuarios.

Tras este informe, la Diputación licitó el 20 de enero un proyecto constructivo y de reparación de los túneles que deberá detallar en el pazo de 12 meses, estas deficiencias y buscar soluciones técnicas. En este sentido, el planteamiento de la Diputación es actuar “a corto, medio y largo plazo”. Para ello, a través de



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Interbiak, encargará la redacción de tres proyectos constructivos “independientes”, con tres fases de actuación separadas en el tiempo, que sirvan para atajar, en cualquier caso, un “deterioro previsto y esperable” en una infraestructura considerada “crítica” por su carácter subterráneo. Los nuevos proyectos deberán dar respuesta a posibles fisuras y daños provocados por la presencia de agua en la estructura de los túneles.

Desde EH Bildu, su apoderado Raúl Méndez ha explicado que estas deficiencias son “muy redundantes” en los 18 años de vida de los túneles y han supuesto costes “abultados” para la ciudadanía. Considera que en los túneles de Artxanda “ha salido mal todo” y que las cavernas “arrastran deficiencias que no son normales”. Ha pedido a la Diputación que “reconozca que las cosas no se han hecho bien”. “Da la impresión que se ha pensado más en el beneficio económico de las empresas constructoras que en la calidad de la obra”, ha dicho.

NUEVO CONTRATO DE CARRETERAS

Pradales ha informado también a los grupos junteros del nuevo contrato para la conservación y explotación, mantenimiento y operación de las carreteras del área metropolitana. La Diputación ha licitado la principal de las cuatro áreas de gestión en las que se divide la red foral de carreteras, ya que asume el “80%” de todo el tráfico del territorio histórico, con unos “3.500 millones de vehículos por kilómetro y año”. La inversión en mantenimiento y conservación de esta área, cercana a los “28 millones” al año, supone el “55%” del total que la Diputación destina a este fin en el conjunto de la red foral. Serán “138,5 millones” en cinco años, lo que supone un incremento del “20%” respecto al contrato actual. Este aumento viene provocado porque se incorporan nuevas infraestructuras y porque se añaden nuevos requisitos de calidad ligados a aspectos tecnológicos y medioambientales.

El nuevo contrato sustituirá al actual, que expira el próximo mes de septiembre, y establece todas las actuaciones a realizar para que las carreteras se encuentren en las mejores condiciones de seguridad y comodidad para las personas usuarias. Entre ellas, el contrato cubre actuaciones en “883 kilómetros de carretera, 359 taludes, 449 puentes y viaductos, 33 túneles y 32 kilómetros de bidegorris”. La realización de las actuaciones contempladas en este contrato suponen la generación de “222 empleos, de los cuales 181 son directos y 41 indirectos”.

EH Bildu ha recordado que la licitación del contrato, el pasado día 15 de mayo, conllevó que la plantilla de la actual concesionaria, UTE AUBIDE, presentara un recurso ante el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales,



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

pues consideraban que se está incumpliendo la normativa sobre cláusulas sociales, y en donde no se incluye explícitamente la subrogación del personal y el convenio colectivo aplicable, según ha explicado Raúl Méndez.

Pradales ha negado este hecho. Ha explicado que el tribunal resolvió el 1 de julio que el pliego de condiciones cumple “sobradamente” con las exigencias sociales, refleja “con rotunda claridad” la referencia al convenio del sector de la construcción, e incluye la subrogación del personal, algo que ha sido trasladado al comité de empresa de AUBIDE.

APARCAMIENTO DE GAZTELUGATXE

En otra comparecencia solicitada conjuntamente por EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia, el diputado ha informado de que la Administración foral paraliza el proyecto de construcción de un aparcamiento para 51 vehículos en Urizarreta, en Bakio, junto a San Juan de Gaztelugatxe, que tenía previsto acometer para este verano. Pradales ha explicado que las medidas puestas en marcha para mejorar la seguridad vial, la apuesta por mejorar la accesibilidad por medio de lanzaderas y el límite de visitantes a 960 personas/día en el enclave turístico como consecuencia del covid-19, dan por finalizado el proyecto de construcción del parking.

REVISIÓN DE “MACROPROYECTOS”

Por último, las Juntas Generales de Bizkaia han rechazado una proposición no de norma de EH Bildu que instaba a la Diputación a adoptar las medidas necesarias para “replantear el modelo de macroproyectos y grandes eventos” en el contexto de la crisis generada por la Covid-19, con el propósito de destinar esa inversión a “fortalecer los servicios públicos”.

La iniciativa ha contado con el rechazo del resto de grupos presentes en la comisión. Eduardo Andrade (PP), que se ha abstenido, ha planteado que se debe de ver primero hasta dónde llegan las consecuencias de la crisis para hacer una reflexión posterior global vía presupuestos. Ignacio Jerónimo (PSE-EE) ha explicado que proyectos de inversión que plantea la Diputación a corto plazo son “tractores” para la economía de Bizkaia en estos momentos, y ha pedido a la coalición abertzale que defina qué proyectos eliminaría. Para él, en estos momentos lo que “se necesita es liderazgo de lo público”, sin olvidar que la inversión en infraestructuras es una “herramienta de inclusión social”. Garazi Díaz intxausti (PNV) ha incidido en el aspecto de que la inversión pública “es más necesaria que nunca” y ha negado que sea una “merma para otros planes



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

sociales”. El sector de la construcción sostiene “más de 28.000 empleos y representa el 6% del PIB” del territorio.